BIZITEGI ERAIKINA — MORAZA 5

C MAILA





Egilea eta data: Luis Elizalde, 1906

Deskribapena

Luis Elizalderen 1906ko proiektua, hogei metro sakonerako eta hamahiru bat metro zabalerako lursailerako. Jatorriz, behe oinaren gainean lau maila zituen eta, beste alde batetik, proiektuko fatxada bestelakoa zen lehen eta laugarren altueretan egungo soluzioarekiko. Jatorrizko oinek etxebizitza bakarra zuten, mehelinari atxikitako eskailera batez, beren patioarekin, eta logeletarako eta zerbitzu geletarako erdiko beste patio batekin. 1925ean, “baoak eraberritu” zituzten eta jasodura bat egin zuten, Antonio Setien arkitektoaren proiektuari jarraituz. Egun, eraikinak jatorrizkoak baino bi oin gehiago ditu, hurrenez hurren atzeraemanak eta, oraingoan, solairuko bi etxebizitzako banaketaz. Hala eta guztiz, eraikinak Art Nouveau-aren dekorazio xehetasun interegarriei eusten die, atarian eta, batez ere, fatxadaren erdiko gaian; kuxindurako harlanduaz tratatutako bi zerrenda bertikalak aldamenean dituela.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:
A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: bi jasodurak eta laugarren goi oineko begiratokia.
B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua.
C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
D.- Nahitaezko lehengoratzeak:
* 1925eko proiektuarekiko jasodura oinetan erantsitako elementuak ezabatzea.
* Laugarren goi oinean kokatutako begiratokia ordezkatu eta tratatzea, Plan Bereziaren Ordenantza Orokorretan ezarritako irizpideei jarraituz.
* Hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotutako gainerakoak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.